

BEHINOLA BASAKORTAK, GAURREGUNEAN KORTABASOAK. DIMA (BIZKAIA)

LARATZU Taldea (*)
Dima. Bizkaia

RESUMEN

La utilización como pastizal de estas parcelas de terreno conocidas como “sel” ha ido derivando con el tiempo hacia su reconversión en montes o plantaciones de arbolado. En cualquier caso, determinados datos relativos a su forma, medidas, ubicación, toponimia, etc., nos están reflejando aspectos de su primitiva función socioeconómica, a pesar de que resulte un tanto difícil ubicar su aparición en un momento cronológico concreto. Además de este análisis general, presentamos en este trabajo una primera aproximación al estudio de los “montes sel” ubicados en el término municipal de la anteiglesia de Dima, en Bizkaia.

SUMMARY

At the beginning these plots of land, named “sel”, were used as pasturelands, but along the years they have resulted in mountains or woodlands. Some reports about their shape, size, location, etc. reveal us information about their first socioeconomic function, although it is very difficult to date their appearance in a specific time. Besides this general analysis, this work represents a first approach to the study of the “sel” mountains located in this town council of Dima, Bizkaia (Basque Country).

LABURPENA

Garai batean abereentzako larre edo bazkeleku bezala erabilitako lur hauek, gerora baso bihurtuz joan zaizkigu. Hala eta guztiz ere, denporan kokatzea zaila gertatzen zaigun hasiera horretan izan zuten eginkizun sozioekonomiko hura islatzen digun hainbat ezaugarri aurki dezakegu berauen itxura, neurriak, kokapena, toponimia etabar aztertuz. Horrez gain, Bizkaiko Dimako udalerraren barrutian kokatzen diren kortabasoak aztertzeke lehen hurbilketa bat egiten ere saiatu gara, inventario antzeko bat aurkeztuz.

(*) Lan honetan: Abel Ariznabarreta, Kepa Velasco eta Zefe Ziarrusta

1. SARRERA

“Korta” edo “gorta” izenez ezagutu izan dira Bizkaian abereentzat larre edo bazkalekutat erabili eta erdi-erdi mugari bat duten itxura borobileko lur zatiak. Larre hauek baso edo mendialdean kokatuta zeudenean “basakorta” izena hartzen zuten, beheko, baserriko edo beronen inguruko ikuilu edo kortarengandik bereizteko, hain zuzen. Gaurregun, normalean, izen osatuago batez deitzen zaie, “kortabasoak” alegia, inon edo inoiz “basakortak” ere erabili izan denaren arrastorik aurkitu izan badugu ere. Hala dio behintzat –eta gure berriemaileei aipatzerakoan ez zaie arrotza iruditzen modu hau ere– Luis de Elizalde euskal toponimiaz aritzean: Dima eta Otxandio arteko muga ingurutan zegoen arboladi bati “*abade txikijaen basakortiae*” dietzen ziotela. Lur zati hauei deitzeko erabili den izenak agertzen duen aldaketa horrek, lurraren berorren erabilpenak izan duen aldaketa islatzen digu, gaurregun pinuz landatutako basoak baitira gehienak: baso aldeko larre edo korta (“basakorta”) izatetik, korta-itxurako, hau da, itxura borobileko, eta -neurriko baso (“kortabaso”) izatera iritsi dira. Euskal Herrian beste hainbat izenez ere ezagutu izan dira larre hauek; besteak beste, “*saroi*”, “*sarobe*”, “*xara*”, “*xarodi*”. Gaztelaniaz deitzeko erabiltzen den izen arruntena “*sel*” edo “*monte sel*” da, inoiz “*cayolar*” ere agertzen delarik. Dena dela, lan honetan zehar “*korta*” eta “*kortabaso*” erabiliko dugu eta hasieran emandako definizioan (itxura borobileko larreak, alegia) sartzen dira Dimako udalerriaren barrutian, lan honen esparruan, hain zuzen, aurkitu ditugun kortabasoak.

2. KORTABASOEN JATORRIA ETA EGINKIZUN SOZIALA

Ohiturazkoa izan da kortabasoak jabego pribatuko lur eremu bezala hartzea, Euskal Herrian eta batez ere isuralde atlantiarrean hain bertakoa den jabego komunaleko eremu zabaletan barne. Dirudenez, artzai kulturaren eremuan, nomada izaeratik egonkortasunerako prozesuan lehen urrats gisa islatzen zaigu, hau da, mugatutako trashumantziaren ezarpen bat. Dena den, Euskal Herrian jabetzaren zentzuaren interpretazioan ezagutarazten den bezala, lurraren pribatizazio prozesu horri zenbait arau edo muga ezarriko zaizkio kasu honetan ere.

Betidanik euskal zuzenbidean, jabegoa pribilegiotzat hartzearen kontra, jabegoaren kontzeptuaren aurrean lurraren erabilera dugu faktore nagusia jabetzaren mantenuan, beti ere komunitatearen mesederako apostua eginez. Beraz, kortabasoaren jabego hau, zenbait aspektutan mugatutzat ulertu behar da, hasiera batean behintzat. Bestalde, kortabaso lur sail

“mugarritua” da, erdiko mugari baten bidez (inoiz kanpoaldeko beste batzuk gehitzen bazaizkio ere) baina ez da lur sail “zarratua”. Kontuan hartzeko bereizketa iruditzen zaigu berau: hesiak argi uzten du jabea ez dena erabilpenetik eta gozamenetik kanpo gelditzen dela; mugarritzeak, ordea, jabeagoa bistan uzten du baina zenbait erabilpenetara mugatua, betidaniko euskal zuzenbidean oinarrituz.

Baina kasu honetan, kortabaso hauen jabe egiten zirenek zer eskubide hartzen zutenei buruz interpretazio ezberdin asko dago; horrela, Antonio Cillan Apalategik (1959:86) hauxe dio hitzez hitz: “**una de las condiciones de los seles, –se escribió en el siglo XVI– es que en virtud de ellos, los vacunos del propietario pueden gozar de todas las hierbas y aguas del contorno, cuanto pudieran alcanzar desde el sel, de sol a sol, retornando a cubilar o majadear en él, pudiendo el dueño prender o carnear o echar fuera del sel cualesquiera ganados**”.

Dena dela, Gipuzkoako Hermandadearen Ordenantza-Koadernoak (1457-1463) gai honi eskainitakoa irakurtzean eskubideak ez direla hain zehatzak ondoriozta dezakegu. Honela dio (ikus E. Barrena, 1982:96-97): “**Que los ganados de cualquier natura saliendo de mañana de sus casas y moradas do moran que puedan pasçer e pascan las yerbas et puedan beber las agoas en cualesquier terminos e montes de tierra de Guipuscoa de sol a sol tornandose a la tarde a sus casas e moradas dende salieren de mañana aunque los tales terminos e montes sean seles e otros terminos amojonados**”. Soilik geratzen ziren baztertuak, hau da, ezin ziren sartu, “**en las viñas nin en los biveros nin en los mançanales nin en las huertas nin en las heredades sembradas nin en los montes en que ovieren pasto en el tiempo que oviere et ese tiempo sea del dia de Santa Maria de Agosto fasta el dia de la Nabadad siguiente**”. Aurrerago, argi uzten du larre (“*pasto*”) hitza nola ulertu behar den: “**sy ay bellota o non o sy ay lande que deba ser goardada o non**”

Honek pentsarazten digu, jadanik Vicario y De la Peñak (1901:94) adierazi zuen bezala, jabego-erregimenari jarraituz bi korta mota ezberdin zeudela: korta “*amankomunak*” eta korta “*propioak*”. Lehenengoan jabeak zuhaitzen jabegoa zuen eta auzokideek idea eta orria aprobetxatu zezaketen; gainera bertatik pasatzeko eskubidea ere bazuten. “Korta propioetan”, ordea, jabeak erabateko jabegoa du, eta zuhaitzak landatu eta ebaki ditzake edo jabegoa bera beste edozein jabegolez saldu beste inork parte hartu gabe. Bereziki aipatzen du Vicariok honelakoak bazirela Diman.

Ez dago, bestalde, batere argi kortabaso hauen jatorria. Dokumentuetan agertzen zaizkigun erreferentziarik zaharrenak errege-donazioetan aurki ditza-kegu; sarritan agertzen dira ezkontza, oinordekotza

edo eleiz instituzioekin erlazionaturik. Lurralde hauen erabilpenerako eskubidearen jatorriari buruzko aipamen gehienak ez dira zehatzegiak; honela dio Vicario berak (1901:93): **“se concedía por los antiguos jefes de Tribu para que de él se aprovechase alguno de los individuos de la agrupación, bien con sus ganados, bien para la roturación o construcción de casa y hacienda”**. Zehaztasun gehiago aurki dezakegu Durangoko **“Fuero de los labradores”** delakoan; Dimako elezatearekin muga egiten duen lurra dugu berau, eta aipatutako Foru hau Nafarroako Antxo Jakintsuak edo Antxo VII.a Indartsuak egindako testutzat daukate batzuk, XII. mendearen bigarren erdialdean, alegia. (Llorentek bere **“Noticias”**-en 1051an kokatzen du). Testu honek lurra eta erabilpen-baldintzak eta nekazarien bizibaldintzak erregulatzea du helburu, baita hauen zergak. Labayru historialariak (1968:II, 775-786) egiten duen dokumentu honen transkribapenetik lerroalde bat hartzen dugu, beronek ematen digularik aztarnaren bat korta deitu lur sail hauen gozatzeko eskubidearen jatorriari buruz: **“Otrosí que en razon de los Seles que son tomados y dados por ley en esta Merindad primeramente el que hobiere de haber Sel que sea arraigado en la tierra llana de Durango que haya caseria é el que non hobier caseria que non haya nin le den el tal Sel é los que hobieren caseria que vayan á la Junta de Guerediaga é que demanden á los fijos dalgo y labradores y Alcaldes que les den Seles para mantenimiento de su ganado é si este que demanda Sel hobier fasta veinticuatro bacas suyas a este tal que dende cada jus dos home buenos el uno fijo dalgo y el otro labrador y estos home buenos que bayan ante el prestamero é con el merino para los montes de Durango é que le den tres Seles y el uno de ellos que sea ybernal é los dos veranales y que le den en lugares convenientes los tales Seles y que los hayan como los otros Seles que son tomados. Y en otra manera que el Señor y cualquier Durangues los pueda derribar y quemar sin pena si algun vizcaino que sea morador fuera de Durango toma en el termino de Durango algun Sel que cualquier Durangues le derrinde sin pena é que no le pueda dar Sel á tal extraño la junta”**.

Testu honen lehen irakurketa batetik ondorio hauek atera ditzakegu:

- Interesdunak berak eskatu behar du kortaren jabe izateko eskubidea ematea, eta hau, Guerediagako Batzarrak ematen du, hau da, Merinaldearen Gobernurako erakunde publikoak.
- Derrigorrezkoa da eskubide hori eskatzeko, Merinaldeko **“lur lauean”** etxearen jabe eta abereduna izan, abelgorriduna izan behar duela zehaztuz.
- Mendi ingurutan kokatutako larreak (abereen mantenurakoak) dira. Merinaldeko mendietako

merinoa bera da kokagunea zehazteko arduraduna.

- Korta mota biren aipamena egiten du, udakoa eta negukoa, ezberdintasunik argitu gabe.
- Testuan bertan aipatutakoak ez betetzeagatik **“bota eta erre”** daitezke kortak, beraz, badirudi haren jabeak lur horretan eraikinak egiteko eskubidea bazuela.

Jabego tipo hau, pribatua baina era berean zenbait eskubide amankomuni erantzun behar diona, interes mota bien arteko burruken iturburu izango da duda barik. Bide horretatik XIV. mendearen azkenean eza gutzen da jadanik zenbait ahalegin kortak hesi eta zarratzeko jabeen partetik, baina aurrez aurre izango dute beti jendearen gehiengo, herri lurren sistemara ohitua eta mantentzeko haren defentsa egiten duena. Lurralde bakoitzeko Foruek hartzen dute alde bataren eta bestearen eskubideak eta mugak jartzeko ardura.

3. KORTABASOAK NEURTZEKO ERAK ETA NEURRIAK

3.1. NEURTZEKO ERAK

Kortak neurtzeko teknikari buruz pare bat ohar egiteari egoki deritzogu. Lur zati borobil hauek neurtzeko orduan, erradioa izango da erreferentzia nagusia; baina, praktikan, zirkunferentzia eta azalera ateratzerakoan, ez dute, normalean, formula matematikora joko; horren orde, erradioaren luzera bera duen neurri-kordelaz (edo katea batez) baliatuz eta berau puntu ezberdinetara botaz finkatuko dituzte lur zati horren mugak. Gero, puntu hoietan jarriko dituzte mugarriak, bata besteagandik distantzia berdín eta jakin batera. Juan Garmendia Larrañagak (1976:148-149) Berastegiko Ansoneta baserriko Joakin Azpirozek emandako dokumentu eta informazioa eskaintzen digu, non honako hau irakur dezakegun: **“Para su inteligencia es de saber que un mojón o gía que se pone en medio o Centro es el rrejimen de todo de donde se mide con un cordel de 12 gorabillas a ocho ángulos de la circunferencia en igual proporción. Y se ponen 8 mojones que bengan a tener el uno del otro 9 gorabillas por línea rrecta de suerte que midiendo todo al rrededor benga a tener 72 gorabillas como forme la hordenanza con que viene a ser en tripla proporción la circunferencia rrespecto del diametro o travesía”. Y a ser ochabo perfecto el sel = Replicase que por cuanto la Lei dice circunferencia y al rededor debe de se Redonda = Satisface que respecto de las medidas no ai otra inteligencia ni la puede haber”**. Beraz, aurrera-geago korten neurriei buruz hitzegiterakoan kontuan hartzeko datua dugu berau: **“al rrededor”** esaten duen lekuan, ezin dugu zirkunferentziaren neurritzat

hartu; ez beti behintzat. Horrela, "inguruko" 72 gorabila hoiek, 75 t'erdi bihurtzen zaizkigu erradioa hartu eta formula matematikoa aplikatuz zirkunferentziaren benetako neurria kalkulatzeko.

Pedro Bernardo Villarreal de Berrizek ordea (1736:123-125), arazoaren zailtasunak aitortu ondoren, kalkulo matematiko zehatzak erabiliz azalduko digu konponbidea: **"Ay muy pocos que sepan medir como se debe un Sel: en rigor Mathematico es dificil, por no haberse la cierta proporcion del diametro con la circunferencia: conforman todos en que es mayor que 7 con 21 y menor que 7 con 22, acercandose mas à 22 que à 21 y assi, por aproximarlos mas à lo cierto seguirèmos la proporcion 7 con 3/4 que es lo mismo que 28 con 87. Todos los Geometras en la Planimetria enseñan que multiplicando la mitad de la circunferencia por la mitad del diametro, que es el semidiametro, el producto darà la area del circulo"**.

Era praktikoago batez egin izan dituzte neurketok gure berriemaileek. Erdiko mugarrin katea bat lotuz eta berau lurraren parean eramanez neurri jakin batera iritsi arte; horrela inguru guztia markatuz. Ez omen zuten, ordea, inguruan mugarririk izaten gure aldeko kortek, gero hainbat kasutan, jarri izan bazaizkie ere. Hau bezain praktikoa baina bitxiagoa, dudarik gabe, iruditzen zaigu Philippe Veyrin historilariak (1943:39) Iparraldean era honetako lurak mugatzeko jasotako modua: **"Encore au XVIII. siècle, on délimitait l'enceinte d'un château en lançant le plus loin possible une hache aux quatre points cardinaux"**.

3.2. NEURRIEI BURUZ

Autore gehienak bat datoz bi motatako kortak zeudela esaterakoan: **"negukoak"** edo korta **"nagusiak"** eta **"udakoak"** edo korta **"txikiak"**. Neurriei dagokienez, lehenengoan erradioa, bigarrenaren bikoitza izaten omen zen, 244 eta 122 metro ingurukoak, hurrenez hurren. Baina dokumentuak zehaztasunez aztertuz, ez dirudi hain sinplea denik kortabasoan neurrien arazo hau, ondoren aurkezten ditugun hauek alderatuz atera daitekenez.

J.M. Barandiaranek (1972:V, 389-398) Pirinioetako artzantza eta larre-aldaketak aztertzerakoan bertako korta hauen neurriak ematen ditu; bi neurritakoak zeudela dio, negukoak edo korta nagusiak eta udakoak edo korta txikiak. Berauek neurtzeko erabiltzen zen neurria **"amaluon"** deiturikoa omen zen: hamalau oin zituen egurrezko palu bat, hain zuzen. Negukoaren erradioak 63 amaluon zituen eta 31 udakoarenak, horrela esan baitzion 1.923.urtean Bizkaiko Berriatuko Asterrika auzoan bizi eta gai hauek adituztat zeukatzen Jeronimo Irustak. Beraz,

negukoarentzat 247 metroko erradioa eta 121,5 metrokoa udakoarentzat. Aurreraxeago, Barandiaranek, aipatutako Jeronimo Irustak bi urte geroago, 1.925ean alegia, esandakoari jarraituz 241 metroko diametroa ematen dio korta txikiari, hau da, 120,5 metroko erradioa. Hurrengo batean, ordea, Barandiaran berak berriro gogoratzen digu neguko kortak, hau da, nagusiak, 494 metroko diametroa zuela eta 244 udakoak edo txikiak. Gainera, Gipuzkoako kortak Bizkaiko korta txikiaren itxura eta neurrikoak zirela esaten du.

J. Caro Barojak (1971:213) kortabasoer aritzean, alde batetik, Pedro Villarreal de Berrizen lana (1736) aipatzen du eta bestetik, XVI. mendeko Gipuzkoako Ordenantzak; har ditzagun, beraz, zuzenean informazio iturri hauek.

Gipuzkorako 1583an idazten den Foru Koadernoan (20.Tit., 3.Legea), korten inguru-neurriari edo zirkunferentziari buruz honela dio: **"en el remate y en la circunferencia setenta y dos goravillas de a siete estados o brazadas cada goravilla, midiendolo con un cordel de doce goravillas, tirado desde el mojón como de centro alrededor"**.

Beraz, 12 gorabila edo 588 oineko erradioa, hots, 164,6 metro. Zirkunferentziarako ematen duen neurria kontu handiz hartu behar dugu, **"en el remate"** horrek ez baitu kasu guztietan borobila adierazten, 3.1 atalean kortak neurtzeko moduari buruz ikusi dugun bezala. Berdin ulertu behar dugu aurrerago zera dihonean: **"de manera que el Sel ha de tener quinientos y cuatro estados"** (=72 gorabila) ; hau ere inguruko neurri bezala baina ez zirkunferentzia bezala.

Gipuzkoan bertan geroago, 1696an, idatzitako Foru Koadernoak ordea honela dio (20.Titul, II kap., 268 orr.): **"para que no haya diferencia en la cantidad de terreno que ha de ocupar cualquiera de los Seles de montes ("seles de montes" = "basakortak" dio eta ez "montes sel" = "kortabasoak") en toda esta Provincia, ni en la forma en que se han de medir sus espacios conforme al Fuero, uso y costumbre de esta Provincia, ordenamos y mandamos que en toda ella haya de tener y tenga el Sel común en el remate y en toda la circunferencia setenta y dos goravillas de a siete estados o brazadas cada goravilla, midiendolo con un cordel de doce goravillas, tirando desde el mojón como de centro alrededor"**. Hamabi gorabilako erradioa, hau da, 164,6 metro. Kasu honetan ere, zirkunferentziaren benetako neurria erradioaren arabera aterako dugu.

Villarreal de Berrizek kortak neurtzeko aipatu dugun sistema azaltzen amaitzerakoan honela dio (1736:125): **"salen 49.329 estados y 5.481 posturas, que es lo que tiene un sel invernizo: y el veraniego, hecha la cuenta en la misma forma, tiene 21.924"**

estados y 2.436 posturas". Hori bada korta mota bakoitzaren azalera, 247 eta 164,3,5 metrotako erradioz ari gara, hurrenez hurren.

J. Ignacio Gamonek Erreteriarri buruzko "*Noticias históricas de Rentería*" (1930) lanean lurralde horretako Gipuzkoako Ordenantzak eta Aita Larra-mendiren (1745) hiztegia aipatzen ditu korten neurriez hitzegiterakoan. Ikusi ditugu jada Ordenantzak; baina bestalde, badirudi, Foru Koaderno hoi en aurretik eman zirela Erreterri-Oiartzun aldean 168 *brazako* erradioa (= 329,3 metro) zuten kortak eta horren erdia (=164,6 metro) zuten beste batzuk ere. Horrela irakur omen daiteke Real Chancillería de Valladolid delakoak 1513an emandako ebazpen baten, Oiartzunek Orreagako Erretetxe eta San Juan de Rodaseko Ordenako hainbat olagizon eta nagusiri irabazitako pleitua erabakiz.

Bizkaiko Jaurerriaren historialaria dugun J.R. Iturrizak (1967:I, 106-107) zera dio: 126 "*estado*" edo "*braza*", bakoitza zazpi oinekoa, zuela erradio ("*semidiametro*" dio berak) neguko kortak eta 63 udakoak. Horrek 247 eta 123,5 metro erradio esan nahi du, hurrenez hurren. Iturriza berak, ordea, honako hau ere esaten du: "**al presente son reputados y estimados generalmente por los peritos los seles veraniegos de 63 estados (...), de estos escribe don Pedro Bernardo de Villarreal y Berriz, Caballero del Hábito de Santiago, haber de 84 estados, y así bien pertenecerle de igual extensión a Santa María de Lequeitío catorce seles en el monte Leya según una escritura otorgada en 18 de setiembre del año 1392**". Beste batzutan ikusi dugun legez, oraingoan ere, 164,6 metroko erradioa izango lukete Lekeitioko hauek ere.

Jose Yangüas y Mirandak (1840: III, 326-327) 1800.urteko dokumentu bat aipatuz zera dio: Orreaga aldean kortak 168 "*toesa*" zituela erradio-neurri legez. "*Toesa*", "*braza*" zein "*estado*" baliokideak direla kontuan hartuz, 329,5 metroko erradioa ateratzen zaigu Orreaga aldeko korta hauentzat.

J. Garmendia Larrañagak (1976:146-148) kortabaso baten mugarriztapen prozesua azaltzen duen dokumentu bat aurkezten digu; neurriei dagokienez honako hau esatera dator: "**para su inteligencia es de saber que un mojón o gía que se pone en medio o centro es el rrejimen de todo de donde se mide con un cordel de 12 gorabillas**". Kasu honetan ere 164,6 metroko erradioa. Lan berean, Garmendiak, Berastegi eta Elduainen aldean zegoen eta egun azken honen lurretan geratzen omen den Ereñabe kortabasoari buruzko beste dokumentu bat aurkezten du. Honela dio: "**el dicho sel de Ereñabe que dixerón ser doble y mayor de ochenta y quatro gorabillas del mojon que estava en medio de dicho sel en circulo igualmente a todas partes**". Bikoitza dela esaten bada ere, ematen diren neurriak

gehiegizkoak iruditzen zaizkigu, 84 gorabila 1.150 metro baitira. "*Gorabila*" dion tokian "*estado*" edo "*braza*" esango balu, ostera, 588 oineko erradioa izango genuke, hau da, 164,6 metrokoa. Horri ego-kiago deritzogu.

Aita J.I.Lasak (1956:XVI, 55) Arantzazu aldeko kortak aztertzerakoan, Oñatiko Hiribilduak 1759an onartutako Ordenantzetan agintzen denez, "**60 pérticas de a nueve pies**", hau da, 151 metro inguruko erradioa izan behar zuten kortabasoek.

J. Arin Dorronsorok (1955:XV, 89), Ataun inguruko artzantza tradizionalaz aritzean, alde batetik, zera dio: Aralar aldeko kortak, 1409.urtean, sei gorabilatakoak zirela. Aurrerago, bestalde, 1765.urtean, Insustiko kortek Aralargoen neurri berdintsuak zituztela dio; hau da, sei gorabila edo 82,3 metro. Txiki xamarrek benetan eta Gipuzkoan arruntenak bezala aipatzen direnen erradioaren erdia juxtu-juxtuan, hain zuzen ere. Arin Dorronsoro berak, 1721ean Ataunen bertan egindako mugarriztapenean zera hartzen dela arautzat dio: "**cada sel de mojón de medio a cualquiera de su redondez haya de distar 60 estados de a siete pies y el pie de 12 onzas**". Honek 117,6 metroko erradioa esan nahi du.

J.M.Mutiloak (1984:245) Zenarruzako Kolegiataren jabegoen hitzegiterakoan "Oquiscoariztia" kortabaso aipatzen du, Gerrickaizeko lurretan kokatua eta 49.896 estado zituen hedaduraz. Horrek 247 metroko erradioa ematen du.

Arratia bailarara hurreratuz, Fermin Leizaolak (1978) Gorbeako artzantzari buruz egindako lantxoan, kortabasoak 130 gizalan zuela dio, eta gizalana 375 m.²; hortik, kortabasoaren azalera 48.750 m.²-koa zela ateratzen zaigu. Kasu honetan, 124,5 metroko erradioa. Aurreraxeago, Leizaolak, Zeanurin kokatuta dagoen "Nikolaskorta" kortabasoak 122,8 metroko erradioa zuela esaten du.

Azkenik, Dimako udalerriaren barrutian aurkitutako kortabasoak zerrendatu aurretik, beraien eredu-garri bezala eta aurreko hauekin konparaketa bat egiteko, aurkezten dugu hemen (ikus irudia) "Kortazuri" kortabasoaren zatiketa-era islatzen duen planoaren kopia. Bertan, angeluak kalkulatzeko erabiltzen den modua ikusteaz gain, 47.374,70 m.²-ko azalera eta 122,8 metroko erradioa zuela adierazten zaigu. Bestalde, Diman bertan 1950eko hamarkadan saldu zen "Urtubi" kortabasoaren eskriturretan ikus daitekenez, "**contiene doce mil setenta y cuatro estados y cinco septimos de estado, o sean cuatro hectareas, cincuenta y ocho areas y ochenta y una centiareas**". Kasu honetan zertxobait txikitxoagoa, hau da, 120,8 metroko erradioa.

Orain arte aurkeztu ditugun datu hauek apur bat aztertuz, honako laburpen-taula hau egin genezake, kortabasoen neurriak kontutan hartuz:

ITURRIA	KOKAPENA	NEURRIA	AZALERA (m. ²)	ERRADIOA (m)
Barandiaran	Berriatua	r=63 amalaoñ	191.666	247 /"neguko"
Barandiaran	Berriatua	r=31 amalaoñ	46.337	121,5 /"udako"
Barandiaran	Berriatua	diam.=241 m.	45.616	120,5 /"txikia"
Barandiaran	Bizkaia	diam.=494 m.	191.666	247 /"neguko"
Barandiaran	Bizkaia	diam.=244 m.	46.759,5	122 /"udako"
Fuero Gip.1583	Gipuzkoa	r=12 gorabillas	85.137,5	164,6
Fuero Gip. 1696	Gipuzkoa	r=12 gorabillas	85.137,5	164,6
Villarreal de Berriz	Bizkaia	sup.:49.329 estados	190.500	246,5 /"neguko"
Villarreal de Berriz	Bizkaia	sup.: 21.924 estados	84.750	164,3 /"udako"
Ch.Valladolid 1513	Oiartzun	r=168 brazas	340.455	329,3 /"nagusia"
Ch.Valladolid 1513	Oiartzun	r=84 brazas	85.137,5	164,6 /"txikia"
Iturriza	Bizkaia	r=126 estados	191.666	247 /"neguko"
Iturriza	Bizkaia	r=63 estados	47.916,5	123,5 /"udako"
Iturriza	Lekeitio	r=84 estados	85.137,5	164,6 /"udako"
Yangüas	Orreaga	r=168 toesas	340.455	329,3
Garmendia	Gipuzkoa	r=12 gorabillas	85.137,5	164,6
Garmendia	Elduaien	r=84 estados	85.137,5	164,6 /"doble"
Lasa	Oñati	r=60 perticas	71.825,5	151,2
Arin Dorronsoro	Aralar/Ataun	r= 6 gorabillas	21.289	82,3
Arin Dorronsoro	Ataun	r=60 estados	43.447,5	117,6
Mutiloa	Gerrikaiz	sup.:49.896 estados	191.600	247
Leizaola	Gorbea	sup.:130 peonadas	48.750	124,5
Leizaola	Zeanuri	r=122,8	47.374,8	122,8
Laratzu/Dima	Dima (Kortazuri)	sup.:47.374,7 m. ²	47.374,7	122,8
Laratzu/Dima	Dima (Urtubi)	sup:12.075 estados	45.881	120,8

Zerrenda horren aurrean nahiko labur geratzen zaizkigu orain arte egindako sailkapenak –oraintsu geuk egindakoa bera ere (ikus, Ariznabarreta et al., 1997)– eta, gutxienez, bost motatakoak ager-

tzen zaizkigu hemen. Baina, azpimarratzekoa da beti gordetzen dela euren arteko proportzio bat, bai azalera bai erradioa kontuan hartzen badugu ere.

MOTA	AZALERA	ERRADIO (M)	KOKAPENAK
I	34 ha.	329,3	ORREAGA ERRENTERI OIARTZUN
II	19 ha.	247	BERRIATUA GERRIKAIZ BIZKAIA
III	8,5 ha.	164,6	GIPUZKOA ELDUAIEN OIARTZUN BIZKAIA LEKEITIO OINATI (?)
IV	4,5 - 4,9 ha.	120,5 - 124,5	BERRIATUA ZEANURI GORBEA DIMA BIZKAIA ATAUN (?)
V	2,1 ha.	82,3	ARALAR ATAUN

4. DIMA UDALERRIKO KORTABASOAK

Bizkaiko behe-ertaroko berezitasunik aipagarri-
netariko bat lurralde-eremuen mugatze prozesua da.
Arratia inguruan Areatzako Villaro hiribildua izango
da entitate propioa hartzen duen lehen gunea, 1338an
hartu baitzuen bere "*Carta Puebla*". Hiribilduen
sorrera honek (21 hiribildu Bizkaian XIII eta XIV.
mendeetan zehar), eragina izan behar zuen beste
lurren, hau da, elizateetako lurren mugatze proze-
suan; ordurarte honelako lurak ez ziren auzoari atxi-
kitutako eremuak baizik, eta bizilagunak eleiza jakin
bati lotuak zeuden.

Dimak mugatze prozesu hau XV. mendean zehar
burutzen du, inguruko herriekin zenbait kasutan
lehia eta borrokak izanik: Durango, Otxandio,
Mañaria, Zeanuri... Kasu bakoitzean hartzen diren
akordioak idatziz jartzen dira eta argi uzten dute
garaiko errealitatea: mendi-ekonomia baten aurrean
gudela, basoa zuzenki ustiatzen duena eta auzoen
iraupena ingurune fisikoaren gainean egiten den
kontrolaren ondorioa dela. Mendiaren defentsa da,
beraz, hark ematen duen egur, oletarako ikatz eta
giza zein abereen elikatzekeo iturrien defentsa.
Mendi-ekonomiazko testuinguru honetan, "jurisdi-
zioen mugatzeak" larre, baso, ur eta ikatzaren gaine-
ko jabegoa esan nahi du... Abeltzantza nagusi den
mendi zonalde guzti honetan badira kortak prozesu
indibidualizatzaile honen aurretik, eta hargatik,
aipatu dokumentuek informazioa emango digute
hauei buruz; gune hauek, kortak, herri mugaketaren
parte izango dira eta hortaz, kasu askotan, egoera
gatazkatsuetan sartuak.

Lehen aipatu den "*Fuero Antiguo de la Merindad
de Durango*" delako dokumentuak, Durangoren
mugak jartzera, egiten du erreferentzia jadanik
"*Seles de Arcabe y Adibalzaga con su korta, y el sel
de Urquiza*"-ri Dimarekin muga egiten duen ere-
muan. Geroago 1455ean, Otxandioko hiribilduaren
kontseiluak eta Arratiako elizateetako prokuradoreek
arbitroak izendatzen dituzte euren arteko mugak
mugarritzeko. Akordioak biltzen dituen dokumen-
tuan Larraluzea eta Kortabarri kortak aipatzen dira
Dimarekiko muga partean. XV.mendea amaitu aurre-
tik, 1497an, akordio bat lortzen da Durangoko meri-
naldea eta Dimako elizatearen artean, bi lurraldeak
banatzen dituzten bien arteko mugei buruz; aurretik
Otxandiorekiko onartua berronesten da eta mugatze
eta mugarritze prozesua jarraitzen da honako kortei
buruzko erreferentziak aurkituz: Agirrekorta, Gorta-
txo, Aluagirre, Asuola, Urkiza, baita "Arçate" eta
"Arçetaungogorta" toponimoak ere. (ikus J.Enri-
quez, 1991:71-73 eta 87-99).

Edozein kasutan ere muga barri hauek zerbait arti-
fizial izaten dira mendi-ekonomian ekinbide nagi-
si abeltzantza zutenen bizilagunentzat. "Berdintze"
akordio horrek mugak jarri ondoren, onartzen du dena
dela: "**E otrosy, quel pasto de pasçer de los gana-
dos, de las aguas e yerbas desde que amanesciere
fasta que anocheçiere, de dia en dia, que siempre
sean sueltos e libres asy los ganados de los de la
dicha anteyglesia de Dima en las partes e partidas
e terminos de los de la Merindad de Durango e, en
semejante, los ganados de los de la dicha merindad
de Durango en los términos de los de la partida e
juridición de la dicha anteyglesia de Dima, los de
los unos en los de los otros, e los de los otros en lo
de los otros, de dia a dia, según que fasta aquí avian
usado e acostunbrado, syn pena e syn calopna
alguna, franca e libre e generalmente**".



Dimak mugakide duen Zeanuriko elizateari dago-
kionez, eta hau ere XV. mendeko 1484. urtean, ordu-
arte zenbait tokitan "*pro indiviso*" zena zatitzen
dute, baina ur, larre eta uzkur mankomunitateak man-
tenduz. XVII. mendean, 1681ean Dima eta Zeanurik
alde batetik eta Otxandiok bestetik, akordio bat lor-
tzen dute hiru udalerrien mugak elkartzen diren ingu-
ruari buruz eta aipamen bat egiten da Asuola eta
Indusiko kortei buruz. Jabegoaren izaera definitu eta
mugatze prozesu honi buruz Dimako elizateak lehia
bizia ezagutuko du XVII. mendean zehar: alde bate-
tik inguruko herriekin orainarte esandakoaren arabe-
ra, eta bestetik, norbanakoek herri lurak pribatizatu
eta usurpatzen dituztelako. Dela hasera beretik korta
"amankomun" eta "propioak" zeudelako, dela pribati-
zazio prozesu baten ondorioz, XVII. mendean
badaude Diman kortak herri-jauntxoaren eskutan, eta
nahiz eta bandoen aroa gainditua izan ez dute horra-
tio nekazari gizarte honenganako kontrola hain erraz
galduko. Horrela bada, 1632.ean Martin Sanchez de
Vilella Zirarruista eta Maria Iñiguez de Atutxaren
ezkontza dela eta, aipatu Martin honi donatzen zaio
etxea, ola eta "*arragua*", bi errota, lurak, basoak eta,
Dimako elizatearen lurretan, Zirarruistatarrenak diren
Azunza, Iñunbarruti eta Eskuaga deitutako hiru korta.

XVIII. mendearen azkenetan, 1799.ean, Jaurerri-
ko "*propio eta arbitrio*"-ei buruz arrazoi ematera-
koan Gernikako Batzar Nagusietan, Diman oraindik
37 korta gelditzen direla aipatzen da. Dimako udale-
txean 1940ko hamarkadan, "Servicio de catastro de la
riqueza rústica del Ministerio de Hacienda" delakoak
eginiko herriko lurren pratzelazioaren datuak izan
ditugu esku artean eta informazio hau oinarritzat har-
tuz geure landa-lanaz osatu dugu. Horren emaitza da
ondoren egiten dugun Dimako elizateko muga
barruan dauden basakorten zerrenda.

MONTE 'CORTASURI'

(Municipio de DIMA)

Superficie total : 47.374'70 m²




F
Dn. Antonio Sagarna
SUPERFICIE : 4.060'02 m²

E
Dn. Juan de Goya
SUPERFICIE : 7.444'93 m²

D'
Dn. Agustín Echezarraga
SUPERFICIE : 3.383'74 m²

D
Dn. Luis d
SUPERFICIE :

nº de orden	PROPIETARIOS	parte de la finca	angulo que le corresponde	superficie m ²	
A	DN. PEDRO LUIS BENGOCHEA	10/70	57'44"	6.767'48	
B	DN. JERONIMO DE ASTONDOA	11/70	62'86"	7.444'93	
C	DN. JOSE DE BENGOCHEA	11/70	62'86"	7.444'93	
D	DN. LUIS DE ELLAURI	5/70	28'57"	3.383'74	
D'	DN. AGUSTÍN ECHEZARRAGA	5/70	28'57"	3.383'74	
E	DN. JUAN DE GOYA	11/70	62'86"	7.444'93	
F	DN. ANTONIO SAGARNA	6/70	36'28"	4.060'02	
G	DN. ESTANISLAO ITURRIAGA	11/70	62'86"	7.444'93	
T O T A L E S				70/70 400'00"	47.374'70



Dimako kortabasoak (ikus mapa):

- | | |
|-------------------------|--------------------------|
| 1. (Aldoia 1) | 20. Munitxakorta |
| 2. (Aldoia 2) | 21. Mantxintxikorta |
| 3. (Aldoia 3) | 22. (Zumeltza 3) |
| 4. Gomintxola | 23. Kortazuri |
| 5. Gorostola | 24. Arkaola |
| 6. Abadtxikin kortabaso | 25. Azuola |
| 7. Larraluze | 26. Urtubi |
| 8. Kortatxiki | 27. (Txupitelarra) |
| 9. Kortanausi | 28. Iturriotz |
| 10. Pintxonbaso | 29. (Usurru) |
| 11. (Lapurreketa) | 30. Sikorta |
| 12. Biorlanda | 31. (Matxinkorta) |
| 13. Adarrakorta | 32. Makatzeta |
| 14. Kortailun | 33. Axxunarratxa |
| 15. Apalatza | 34. Olabarria |
| 16. Pagoditxiki | 35. Usukuko kortabaso |
| 17. (Zumeltza 1) | 36. (Baltzola) |
| 18. (Zumeltza 2) | 37. San Lontzoko pagoeta |
| 19. Garikorta | |

5. GOGARPEN BATZUK

a) Zerrenda edo inbentario honetan agertzen diren kortabasoak –bat izan ezik– “txikiak” edo “udakoak” motakoak (3.2. atalean aurkeztu dugun sailkapeneko IV multzokoak, alegia) dira; beraz, erradioaren neurria 120-124 m. bitartekoa da. Honetaz esan beharra dago, nolabaiteko desberdintasunak nabaritu ditugula jabetza dokumentuetan kortabaso bakoitzari ematen zaion neurria eta lehen aipatutako Ministerio de Hacienda delakoaren katastroan agertzen denaren artean. Bestaldez, ulergarria da baita kortabaso batetik bestera ematen den diferentzia apurra: erradioa “kateara” neurtzen omen zen; hau da, katea erdiko mugarriaren puntuan lotu ondoren zirkunferentzia markatzen zen buelta osoan, baina zelaiaren gorabeherak errespetatuz eta katea denpora guztian lurraren- kontra eramanaz. Horrek sortzen zituen, kasu batzutan, neurri-ezberdintasunak.

b) Dimako udalerriaren barrutian kokatu ditugun 37 kortabaso hauen artean besteak baino nabarmenki txikiagoa den bat (35: “Usukuko kortabaso”) agertzen zaigu. Hala eta guztiz ere, ez zaigu nahikoa iruditzen “udako kortabaso-erdia” dela baieztatzeko. Dena den, basoko lanetan luzaro aritu den adineko jendeak “osoak eta erdiek ei dagoz” esaten digun arren, ezagutzen dituztenak denak dira neurri beretsukoak (120-123 m-tako erradiodunak).

c) Ez dugu, oraingoz behintzak korta nagusirik aurkitu Dimako lurretan; nahiz eta kortabasoren batek izen hori izan (“Kortanausi”), neurrien arabera udakoa edo korta txikia motakoa da. Hala ere, begiz

ikusitako ahal izan ditugu –tokian bertan baieztatu eta aztertu beharra legoke– Zornotza, Galdakao,... aldean; hau da, itsas aldera hurbiltzen garen neurrian.

d) Kortabaso guztiak agertzen dira mendetan zehar artzantza-leku izan diren inguruetan, 450-500 metrotik gora kokatuta; hala ere, larre edo bazkaleku egokiak diren lurretan bakarrik eta ez udalerriaren iparraldean, Aramotz mendilerroaren inguruan, alde karstikoa baita beratu eta nahiz eta artzantza-lekua izan, ez dago bertan bazkaleku zabal handirik. Gure berriemaileen ahotik sarritan entzun duguna izan daiteke arrazoi, seguraski: **“lur onenetan eiten eurien kortabasoak; atxean eztago kortabasorik”**.

e) Aipatutako kortabaso guztiak jabedunak dira. Ez dago kortabasorik Dimako herri-lurretan. Hala ere, hauetarik bost Zeanuriko Altzustako San Migel Kofradiarenak izan dira orain denpora gutxirarte; hamarkada honetan banandu dira azkenak Kofradia honetan “foguera”-jabeak zirenen artean.

f) Kortabaso hauek kokatuta dauden inguruetan ugariak dira “gorta/ korta” eta “ola” leku izenak; batzutan, kortabasoari berari, bestetan, inguruko lekuren bati izena emateko erabiliz (ikus mapa). Aurretiaz ere ohartuak geunden honetaz, Zenarruzako Kolegiataren kortabasoaren kasuan esaterako, eta berriro baieztatzen da gurean ere. Jakinaenez, “ola” honek, mendialdean eta artzantza inguruetan, txabola edo artzain-eraikuntza bat adierazten digula ulertu behar dugu eta ez burdinola, gure etnografiaren hainbat aztertzailek (Barandiaran, Lekuona, besteak beste) jadanik ohartarazi gintuen legez.

AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAK

- ARIN DORRONSORO, Juan. 1955 *Notas acerca del pastoreo tradicional de Ataun*, Donostia, A.E.F.
- ARIZNABARRETA, A., VELASCO, K. eta ZIARRUSTA, Z. 1997 *Kortabasoak: Lurraren jabetza eta erabilpenak mendialdean (Dima. Bizkaia)* in "Basoaren eta mendiko gizarteen antropologia". III Jardunaldiak, Gasteiz, E.I./S.E.V.
- BARANDIARAN, Jose Miguel. 1972 *Obras Completas*, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca.
- BARRENA OSORO, Elena. 1982 *Ordenanzas de la Hermandad de Guipuzcoa (1375-1463). Documentos*, Donostia, E.I./S.E.V.
- CARO BAROJA, Julio. 1971 *Los Vascos*, 4.ed., Madrid, Istmo.
- CILLAN APALATEGUI, Antonio. 1959 *La Comunidad Foral de Pastos en Guipúzcoa*, Donostia, Diputación de Guipuzkoa.
- ENRIQUEZ FERNANDEZ, Javier. 1991 *Fuentes documentales medievales del Pais Vasco* (nº 31), Donostia, E.I./S.E.V.
- GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan. 1976 *De etnografía vasca*, Donostia, C.A.P.
- ITURRIZA, Juan Ramón. 1976 *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*, Bilbo, Edic. Rodriguez Herrero.
- LABAYRU, Estanislao J. 1968 *Historia General del Señorío de Bizkaia*, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca
- LASA, Jose I. 1956 *Toponimia, agricultura y establecimientos humanos en el barrio de Aranzazu (Oñate)*, Donostia, A.E.F.
- LEIZAOLA, Fermín. 1978 *Notas sobre el pastoreo en Gorbea*, Bilbo, Aurman.
- MUTILOA, Jose M. 1984 *La desamortización en Vizcaya*, Bilbo, C.A.V.
- YANGÜAS Y MIRANDA, José. 1840 *Diccionario de antigüedades del reino de Navarra*, Iruña.
- VEYRIN, Philippe. 1943 *Les Basques. De Labourd, de Soule et de Basse Navarre. Leur histoire et les traditions*. Arthaud
- VICARIO Y DE LA PEÑA, Nicolás. 1901 *Derecho Consuetudinario de Vizcaya*, Madrid.
- VILLARREAL DE BERRIZ, Pedro Bernardo. 1736. *Máquinas hidráulicas de molinos y ferrerías, y gobierno de los árboles de Vizcaya*, Bilbo.

